

AMONAREN URREZKO ORRAZIA

Udako solstizio egunean, Ane eta Iker amonaren etxera joan ziren askaltzera. Amona Miren mendialdean zegoen baserri handi batean bizi zen, oiloak, ardiak eta bere baratza kuttuna zainduz. Uraza eta tomate ederrak oparitzen zizkien Ane eta Ikerri maiz.

Baserrian sartu orduko usaindu zuten amonaren bizkotxo egin berria. Oiloen arrautza freskoekin egurrezko labean egindako bizkotxoa baino hoberik ez zegoen mundu osoan. Are gutxiago, bizkotxoa bultzatzeko amonak egindako sagar-zukuaz lagunduta.

- Arratsalde on, amona! – agurtu zuten Ane eta Ikerrek.

Ikerrek amonari bi musu ematen zizkion bitartean, Anek ezpainak miatzatu zituen parean zuen askari goxoari begira. Ondoren, Anek eman zion musu parea.

- Arratsalde on, bikote! – erantzun zien amonak – Zer berri ikastolan? Zertan aritu zarete gaur?
- Ba, oso egun garrantzitsua izan da amona, handitan zer izango garen erabaki dugulako. Ni basajauna izango naiz! – esan zion Anek indartsu plantak egiten.
- Bizkotxo asko jan eta sagar-zuku asko edan beharko duzu orduan, neskato – erantzun zion amonak barrez, zuku gehiago prestatuz.
- Nik ere bai, amona. Ni sorgina izango naiz eta horretarako ere, zuku asko edan behar dela esan digu maisuak – bota zion Ikerrek, bide batez, amonari ziria sartu eta zuku gehiago dastatzeko.
- Txantxetan ari al zarete? Nola bururatu zaizkizue halako ideiak? – galdetu zien amonak harrিতuta.
- Zukuarena txantxa zen bai, baina sorgina izatearena ez. Handitan sorgina izan nahi dut, mendiko landareak ezagutu eta horiekin lagunak nola sendatu ikasteko. Maisu Aitorrek esan digu sorginek

asko zekitela basoko lore eta belarrei buruz eta horiekin ukenduak egiten zituztela ingurukoak sendatzeko – azaldu zion Ikerrek.

- Ni ere ez naiz txantxetan ari. Basajauna izango naiz handitan, trumoia noiz datorren jakingo dut, ardiak galtzen direnean topatuko ditut... Gainera, indartsu-indartsua izango naizenez, errotak eraikiko ditut garia xehatzeko. Horrela, bizkotxo asko egin ahal izango ditugu.
- Ideia bikainak dituzue, alajaina! – esan zien amonak txundituta.
- Amona, zuk zer izan nahi zenuen handitan gure adina zenuenean? – galdetu zion Anek jakin-minez bat-batean.
- Ez dut sekula gehiegi pentsatu Ane, beti gustatu izan zaidalako baserritar xumea izatea, baina pentsatzen jarrita... uste dut lamia izango nintzatekeela – erantzun zuen amonak pentsakor.
- Ideia bat bururatu zait! – Bota zuen Ikerrek emozio biziz. – Bihar gauean, Donibane jaiko suaren gainean salto egitean, lamia izan nahi duzula pentsatzen baduzu, agian lamia bilakatuko zara.
- Zuek ere salto egitean basajauna eta sorgina izatea pentsatu beharko duzue orduan – proposatu zien amonak – eta horretarako, su dotore bat prestatzea komeni zaigu. Neskato basajaunaren indarra eta mutiko sorginaren jakinduria beharko ditugu horretarako. Lanerako prest?
- Bai, amona! – erantzun zuten aho batez Ane eta Ikerrek.

Hirukotea ukuilura joan zen sutarako egur bila. Bat-batean, amona lurreko enbor zati bat jasotzera zihoala, amantaleko poltsikotik urrezko orrazi bat erori zitzaion, lamiena bezalakoa. Ane eta Ikerrek zur eta lur begiratu zioten elkarri. Amona lamia izango ote zuten?

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila amona Mirenen baratzean.

DONIBANE